

EUSKAL HERRIA

IBILALDIA 2005

Ikastolek Durangon dute hitzordua

Ibilaldiaren antolatzaileek dena prest dute, baina zerura begira pasatu zuten atzoko eguna

IÑIGO BILBAO - BILBO

Ibilaldia-05 jaia ospatuko da gaur Durangon (Bizkaia), *Emon bostekoa!* lelopean. Kurutzia eta Ibaizabal ikastoletako ordezkariak zerura begira egon ziren atzo arratsaldean, arduratuta. Hala ere, prest dauzkate zirkuituko zazpi jaiguneak, espero dituzten ehun mila euskaltzaleei ongiatorria egiteko.

6,5 kilometroko ibilbidea atondu dute Anboto mendiaren magalean, Durango eta Abadiño udalerrien artean. Bide lau-laua aukeratu dute antolatzaileek, adin eta sasoi guztietako euskaltzaleentzako egokia. Ibilaldia, gainera, *erabilaldia* izatea gura dute; Durango aldera joango diren guztiek euskararen alde euskaraz egitea nahi dute.

Nabarmentzekoa da, bestal-

de, aurton jaiak 24 ordu izango dituela, Durangokoa amaitzen denean, 20:00ak aldera, AEBetako Reno hirian bizi diren euskaltzaleek hartuko baitute festaren lekukoa. Han kilometro biko ibilbidea prestatu dute.

Ibilaldiak aurton bi asmoa ditu, bi direlako jaia antolatu duten ikastolak. Ibaizabalekoek Lanbide Heziketako biderei eutsi nahi diote, hori delako ikasto-

len mugimenduak etorkizunari begira bere buruari ipini dion erronketako bat. Kurutzia egoket, berriz, 3. lerroaren alde egin nahi dute, ikastolan hezi nahi duten ume guztiei erantzuteko.

Ibilaldira joateko asmoa dute nei eskaera berezia egin diete antolatzaileek: garraio publikoa erabiltzeko. Trenak ordu laurdeno izango dira, eta autobusak, berriz, ordu erdiro.

ERREPIDEAK

25 urteko gizon bat hil da Donostian, gidatzen zihoan autoa iraulita

Atzo goizaldeko 05:00etan 25 urteko gizon bat hil zen Donostian, Anoeta futbol zelaiaren inguruan, biribilgune batean, gidatzen ari zen autoa iraulita. Kolpearen ondorioz, unean bertan hil zen gaztea. Bestalde, ordubete lehenago, Barakaldon (Bizkaia), beste auto bat errepidetik atera eta hiru gazte zauritu ziren, horietako bat larri.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Gizon bat atxilotu dute Eibarren, ustez emaztea jotzeagatik

Ertzaintzak 40 urteko gizon bat atxilotu zuen asteazkenean Eibarren (Gipuzkoa), ustez emaztea jo eta labana batekin mehatxatzeagatik. Azken hilabeteetan erasoak jasan izan dituela azaldu zion emakumeak Ertzaintzari.

GERTAKARIA

26 urteko gizon bat atxilotu dute Bilbon, gazteen pornografia delitu bat dela medio

Gazteen pornografia irudiak zitutuzten disketeak atzeman zituzten Ertzaintzak ostegunean 26 urteko gizon bati Bilbon. Ertzaintzak iazko irailean hasi zituen ostegunean atxilotu zuten gizonaren inguruko ikerketak. Ertzaintzaren arabera, gazteen irudi pornografikoak zituzten gizonak bere ordenagailuan.

EUSKARA

Lanbide Heziketa euskalduntzeko eskatuko du EHEK

Bilboko Euskal Herriaren Euskaraz-ek (EHE) kanpaina bat egingo du hiriko hainbat eragilerekiko, Lanbide Heziketako ikasketak euskaraz eskaini daitezkeen eskatzeko. Bilbon 55 ziklotik bi baino ez dira eman euskaraz aurtengo ikasturtean (%3,7).

HEDABIDEAK

MIDASen zuzendaritzan izango da BERRIA beste lau urtez

Alemanian, Bautzen hirian, egin du MIDASek laugarren batzar nagusia

GURUTZE JAUREGI - BAUTZEN

Berriemaile berezia

Europako hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren egunkarien elkarteak bere laugarren batzar nagusia egin du Bautzenen, Saxoniako Lusazia eskualdean (Alemania). Lehendakaria eta zuzendaritza taldea berrituz gain, bertako hizkuntza, sorabiera, izan dute hizpide.

Hizkuntza galtzear duen herrialdea aukeratu du MIDASek bere laugarren batzar nagusia egiteko. Sorabierari 60.000 hiztun geratzen zaizkio, eta urtean 1.000 inguru galtzen ditu. Aituen esanetan, hizkuntza eslabiar honen etorkizuna kinka larrian da, eta ez du inolako bermerik aurrera egiteko.

Halako egoera larria dela eta, MIDASek bermeak eta laguntzak eskainiko dituen Europa aldarrikatu zuen ostiralean, Bautzenen, urteko batzar nagusian. Toni Ebner MIDASeko lehendakaria eta Dolomiten Hego Tirolgo egunkariko zuzendaria argi mintzatu zen: «MIDASek tinko jarraituko du lanean hizkuntza gutxituen etorkizunaren alde». Europako Parlamentura eskari hori eramateko konpromisoa hartu zuen.

Elkarteko kide diren egunkariaren egoeraz gain, zuzendaritza batzordearen berritzea izan da aurtengo gai nagusia. Oraingo

lehendakaria eta zuzendaritzako kideak beste lau urtez kargu horietan jarraitzea hitzartu dute, aho batez. *Egunkaria* zen bezala, BERRIA ere zuzendaritzako kide izan da. Datozen lau urteetan ere betekizun hori izango du, beste bost egunkarirekin batera: *Vasabladet* (suedierazko egunkaria Finlandian), *Regio 7* (katalana), *Új Szó* (hungarierazko egunkaria Eslovakian), *Flensborg Avis* (danierazko egunkaria Alemanian), eta *Primorski Dnevnik* (Eslovenierazko egunkaria Italian). Toni Ebner *Dolomiteneko* (alemanezko egunkaria Hego Tirolen) zuzendariak jarraituko du lehendakaritzan.

Bigarren sari banaketa

Batzararen ostean, MIDAS eta Otto von Habsburg sariak banatu zituzten, Bautzengo Wjelbik zentro sorabiarrean. Bigarren sari banaketaren irabazleak Bjorn Mansson finlandiarra (MIDAS saria) eta Gian Antonio Stella italiarra (Otto von Habsburg saria) izan dira. MIDAS sa-

ria, elkarteko egunkari kideetako kazetariak ematen diete. Lehen saria Ainara Mendiola BERRIAko Mundua ataleko sailburuak jaso zuen, iaz. Aurten, *Hufvudsbladet* Finlandiako egunkari suediarreko Bjorn Mansson izan da irabazlea.

Eremu urriko eta hizkuntza gutxituen egunkari garrantzia nabarmendu zuen, eta egunkaririk ez duten gutxiengoari eskaini zien saria. «Komunikabideak berebizikoak dira gutxiengoentzat; komunikabideirik ez duen hizkuntza existituko ez balitz bezala bizi da, ez baitu presentzia errealik gizarrean».

Otto von Habsburg saria Gian Antonio Stella idazle eta *Corriere della Sera* egunkari italiarreko kazetariak jaso du; «Italiako hizkuntza gutxituak ezagutarazteko eta kontuan hartzeko egindako lanagatik».

Sorabierak bizirik irauteko

Azken hogeitun urteetan, sorabierak hiztunak galdu ditu etenga-



EGUNKARIETAKO ordezkariak, batzarrean. MATTHIAS BULANG / SN

utrikuko Institutua
2005-06 Ikasturterako AURREMATRIKULA
Ekainaren 1etik - 8ra

ZIKLOAK

Erdi mailakoa:

- Merkataritza

Goi mailakoa:

- Administrazioa eta Finantzak
- Instalazio Elektroteknikoak
- Akuakultura Produktzioa

© 943-603627/943-603545 • www.mutrikuko-institutua.net • ies-mutriku@jet.es

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILADEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

IRAGARKIA

ARABAKO ERRIOXAKO, ARABA ERDIALDEKO ETA AIARAKO EREMU FUNTZIONALETAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAK

Abenduaren 28ko 271/2004 eta 277/2004 Dekretuen bidez, eta urtarrilaren 25eko 19/2005 Dekretuaren bidez, behin betiko onartu ziren Arabako Errioxako, Araba Erdialdeko eta Aiara Eremu Funtzionaletako Lurraldearen Zatikoko Planak, hurrenez hurren.

Dekretu horiek ondorengo Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkari hauetan argitaratu ziren:

- Arabako Errioxako LZP (2005eko otsailaren 11ko EHAA, 29 zk.).
- Araba Erdialdeko LZP (2005eko otsailaren 16ko EHAA, 32 zk.).
- Aiara LZP (2005eko martxoaren 23ko EHAA, 57 zk.).

Lurraldearen Zatikoko hiru Plan horiek interneten eskuragarri daude Eusko Jaurlaritzako www.euskadi.net web gunean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko maiatzaren 29a.